



# Unitate Didaktikoa

Ikasgai kurrikularretan aplikatzekoa

ZERUERTZ. HEZKUNTA ETA SENTSIBILIZAZIO INTERKULTURALA DBHKO IKASLEENTZAT

## Balio zibikoen eta etikoen hezkuntza

01. Datu orokorrak
02. Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarriko jakintzak.
03. Jardueraren deskribapena
04. Baliabideak eta materialak



ZERUERTZ



# Datu orokorrak

**TITULUA:** Pertsona migratuei baloreetatik eta etikatik lagunduz

**ETAPA:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**ZIKLOA:** 3. zikloa

**DENBORALIZAZIOA:** Jarduera hau egiteko, ikasgelan 2 lan-saio egin behar direla uste da (1. Zereginaren sarrera eta prestaketa; 2. Bateratze-lana eta talde-hausnarketa). Horri gehitu beharko zaio ikasgelatik kanpo elkarrizketa planifikatu eta egiteko behar den denbora, ikasleek beraiek balioetsitako premien arabera zehaztuko dena.

Jarduera hau ikasturtean zehar egin daiteke, gai horri esleitutako beste zeregin batzuekin batera.

## JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

- Migratutako pertsonen elkarrizketak egitea beraien jatorrizko herrialdeei, kulturei, bizi-ohiturei eta migrazio-prozesuei buruz.
- Migratutako pertsonen aurrez aurre dituzten erronka etikoak identifikatzea (diskriminazioa hainbat arrazoiengatik, familia-banaketa...).
- Migrazioan parte har dezaketen balio unibertsalak aztertzea (elkartasuna, errespetua, justizia, ekitatea...).
- Komunitatean migratutako pertsonak gizarteratzeko eta haiei laguntzeko konpromisoa hartzeko banakako eta taldeko ekintzak sortzea.

## HELBURUAK

- Pertsona migratuen tratua inguruko erronka etikoei eta balioei buruz hausnartzea.
- Pertsona migratuekiko enpatia eta entzute aktiboa sustatzea.
- Migrazio-prozesuen kausak eta motak ulertzea.
- Aztertzea nola gure balioek sortzen eta bideratzen dituzten gure ekintzak pertsona migratuekiko tratuan.

ZERUERTZ



# Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarrizko jakintzak

## FUNTZESKO KONPETENTZIAK

- Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia (HKK)
- Konpetentzia Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa (KPSII)
- Konpetentzia Digitala (KD)
- Herritar Konpetentzia (HK)
- Ekimenerako Konpetentzia (EK)
- Kulturaren Kontzientzia eta Adierazpenerako Konpetentzia (KKAK)

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1.KONP.ESPE.:** Giza identitateari eta bizi proiektuari berari lotutako auzi etikoei buruzko alderdiak analizatzea eta ikertzea, informazio fidagarria modu kritikoan aztertuz eta hausnarketarako jarrera bultzatuz; hori guztia, autoezagutza sustatzeko eta planteamendu eta judizio moralak egiteko modu autonomoan eta arrazoituan.

**1.2.EBALU.IRIZP.:** Ideiak, emozioak, afektuak eta desioak identifikatzea, kudeatzea eta komunikatzea, beste pertsonak ulertuz eta haiekiko modu enpatikoan jokatzuz, autoestimua adieraziz eta kontzeptu egokia partekatuz pertsonen arteko harremanek (esparru afektibo-sexualekoak barne) izan behar dituzten ezaugarriak buruz.

**1.3.EBALU.IRIZP.:** Autonomia morala garatzea eta erakustea deliberazio arrazoitua baliatuta, kontzeptu etikoak erabiliz eta errespetuz hitz eginez beste pertsona batzuekin zenbait balio eta bizimoduei buruz. Orobat, honako gai hauei lotutako arazoei buruz ere hitz egingen da: eskubide indibidualak, sareen erabilera segurua eta arduratsua, adikzio jokabideak eta eskola jazarpena.

**2.KONP.ESPE.:** Arau eta balio zibiko eta etikoen arabera jardutea eta elkarri eragitea, bizitza komunitarioa arautzeko duten garrantzi oinarriduna aitortuz eta modu eraginkor eta arrazoituan aplikatuz hainbat testuingurutan, elkarbizitza baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta guztion ongiarekin konprometitua sustatzeko.

**2.3.EBALU.IRIZP.:** Guztion ongiaren aldeko konpromisoa sortzen laguntzea, puri-purian dauden gai etikoak aztertuz eta horien gaineko iritzia emanez modu arrazoituan eta elkarriketaren bidez; gai horietako batzuk dira, besteak beste: desberdinkeria eta pobrezia aurrakako borroka; lanerako, osasunerako, hezkuntzarako eta justiziarako eskubidea eta ikerketa zientifikoaren xedeak eta muga etikoak.

**2.5.EBALU.IRIZP.:** Modu aktiboan laguntzea gizarte ongizateari, iritzi propioa, esplizitua, informatua eta etikaren aldetik oinarrituta erakutsiz honako alderdi hauei buruz: giza eskubideen balioa eta pertinenzia; aniztasun etnokulturalarekiko errespetua; balioa aitortzea ondasun publiko globalei eta zergen balio sozialari antzematea.

**4.KONP.ESPE.:** Estimua egokia erakustea norbere buruarekiko eta ingurunearekiko, norberaren eta bestearen emozioak eta sentimenduak ezagutzeko eta baloratuz; hori guztia, jarrera enpatikoa eta arretatsua erakusteko besteekiko eta naturarekiko.

**4.1.EBALU.IRIZP.:** Norberaren eta bestearen emozioak, estimua eta zaintza modu orekatuan kudeatzeko jarrera garatzea, norberaren emozioak eta sentimenduak modu asertiboan identifikatuz, aztertuz eta adieraziz, eta bestearen ezagutzeko eta baloratuz hainbat testuingurutan eta sorkuntza-jarduerekin eta gai etiko eta zibikoei buruzko banakako edo elkarriketa bidezko gogoeta-jarduerekin lotuta.

## OINARRIZKO JAKINTZAK

### A. AUTOEZAGUTZA ETA AUTONOMIA MORALA

**A.4.** Emozioen eta sentimenduen hezkuntza. Autestimua pertsonala. Berdintasuna eta elkarrekiko errespetua besteekiko harremanetan.

**A.7.** Etika, gure ekintzen gida. Baliotsua denaren eta balioen gaineko hausnarketa: unibertsaltasuna eta aniztasun morala. Arau, bertute eta sentimendu moralak. Zoriontasunaren etikak, betebeharraren etikak eta bertutearen etikak.

### B. GIZARTEA, JUSTIZIA ETA DEMOKRAZIA

**B.1.** Elkarriketaren bertuteak eta argudiatzeko arauak. Gatazkak bakebidez ebaztea. Gainerako pertsonarekiko enpatia.

**B.2.** Gizartearen izaera eta jatorria: lehia eta lankidetzatza, berekoikeria eta altruismoa. Gizarte egiturak eta talde bateko kide izatea.

**B.6.** Desberdintasun ekonomikoa eta pobrezia aurrakako borroka. Globalizazio ekonomikoa eta ondasun publiko globalak. Bidezko merkataritza. Lanerako, osasunerako, hezkuntzarako eta justiziarako eskubidea. Zergen balio soziala.

**B.7.** Genero-berdintasuna eta feminismoaren olatuak eta korronteak. Nesken eta emakumeen aurkako esplotazioaren eta indarkeriaren prebentzioa. Erantzunkidetasuna etxeko lanetan eta zaintza lanetan.

**B.8.** Kulturartekotasuna. Gizarte inklusioa eta identitate etnokulturalak eta genero-identitateak errespetatzea. LGBTBI+ eskubideak.

ZERUERTZ



# Jardueraren deskribapena

## 1. FASEA. SARRERA (IRAKASLEEN ALDETIK)

Migrazioaren gaia aurkeztea, eta ikasleak motibatzea kultura-aniztasunaren garrantziaz hausnartzera.

- Horretarako, irakasleak *DBHko ikasleekin kulturartean hezteko eta sensibilizatzeko gida didaktikoan* oinarritu ahal izango dira ezagutza transferitzeko. Gida hori Zeruertz-eko taldeak egin zuen, ele bitan (gaztelaniaz eta euskaraz), 2022ko edizioan.

## 2. FASEA. IKASLEAK ELKARRIZKETARAKO PRESTATZEA

Fase honetan, irakasleek egin beharreko jarduera sartu beharko diete ikasleei; hau da, elkarrizketa bat egin beharko diete migratutako pertsonei. Ikasleek inguruko pertsona migratu bat elkarrizketatu beharko dute, guri dagokigun gaiari buruz, migrazio-prozesuen eta Nafarroako harreraren ezagutzari eta azterketari buruz, entzute aktibotik eta enpatiatik abiatuta.

Elkarrizketa prestatzeko eta munduko herrialdeetan dagoen kultura-aniztasunari buruzko testuinguru teoriko bat sortzeko, ikasleek hainbat herrialdeetako bizitzaren eta kulturaren historia ikertu beharko dute, oro har, eta elkarrizketatutako pertsona migratuaren jatorrizko herrialdean, bereziki.

Ekintza horrek aukera emango dio ikasleari irekitasun-posizio batean jartzeko, jakin-min-egoera bat sustatzeko, hurrengo zeregina errazteko, hau da, elkarrizketan adierazitako galderak egiteko.

## 3. FASEA. ELKARRIZKETA PERSONA MIGRATU BATI

Eskuratutako ezagutzatik abiatuta, ikasleek galdera-gidoi bat prestatu beharko dute elkarrizketa zuzentzeko. Aurkezpenaz, migratutako pertsonaren sarrera gisa, eta agurrez gain, elkarrizketatuari egindako ekarpena eskertzeko, elkarrizketaren gorputzean migrazio- eta harrera-prozesuarekin lotutako galderak izango dira.

Ondoren, elkarrizketa hau egiteko laguntza eta adibide gisa, galderen zerrenda bat eskaintzen da [1. eranskinean](#), ikasleek, edozein ikasturtetan daudela ere, beren interesa eta lehenetsua kontuan hartuta, elkarrizketa gidatzeko orientabide bat aukeratu ahal izan dezaten.

#### 4. FASEA. ELKARRIZKETAREN AURKEZPENA ETA HAUSNARKETA-EZTABAIDA IKASGELAN

Elkarrizketa egin ondoren, interesgarria izan liteke ikasgelan espazio bat bilatzea, esperientzia horien trukea eta ikasleen arteko elkarrizketen ondoriozko pertzepzioak sustatzeko. Horretarako, ebaluazio-modu gisa proposatzen da bai elkarrizketaren aurkezpena, bai hortik eratorritako esperientzia.

Era berean, ikasleen azalpenaren ondoren, taldekako eztabaida bat sustatuko da kulturartekotasunari eta migrazio-prozesuei buruz, bai eta jarduera hori egiteak ikasleengan izan duen eraginari buruz ere.

ZERUERTZ



---

# Baliabideak eta materialak

## BEHARREZKO BALIAKIDEAK

- Interneterako sarbidea eta ikerketa-materiala (irakasleek baloratu beharrekoa).
- Elkarriketak grabatzeko gailu elektronikoa, beharrezkoa bada, ondorengo aurkezpen-lana errazteko.

## IRAKASLEENTZAKO MATERIAL GEHIGARRIAK

- [Aula Intercultural](#)
- [Ministerio de Educación y Formación Profesional](#)

ZERUERTZ



# 1. eranskina. Eredugaldere zerrenda

1. Zure migrazio-esperientziaz hitz egin dezakezu? Zerk bultzatu zintuen beste herrialde batera migratzeko erabakia hartzera?
2. Zeintzuk dira zure migrazio-prozesuan aurre egin behar izan diezun erronkarik handienak?
3. Zer balio pertsonalek lagundu dizute positiboki migrazio- eta harrera-prozesu osoan?
4. Zer aukera aurkitu dituzu zure balio eta sinesmenetatik tokiko komunitateari ekarpen positiboa egiteko?
5. Aurkitu al duzu egoerarik zure balioek eta sinesmenek harrerako ingurune berrian nagusi direnekin talka egin dutenik? Nola gidatu zenituen?
6. Zer ikasi duzu enpatiaren, entzute aktiboaren eta elkar ulertzearen garrantziaz, zure migrazio-esperientziatik abiatuta?
7. Zure herrialde berrian izan al duzu zure pertsonarekiko diskriminazio-ekintzarik edo/eta aurreiritzirik? Nola egin diezu aurre egoera horiei?
8. Zure ustez, nola lagun dezakete balioetan eta etikan oinarritutako hezkuntzak gizarte inklusiboagoa eta migratuekiko errespetuzkoagoa sustatzen?
9. Desberdintasunik sumatu al duzu migratutako pertsonak tokiko pertsonekin alderatuta tratatzeko moduari dagokionez?
10. Nolakoa izan da kultura eta gizarte berrira egokitzeko prozesua?
11. Zer aholku emango zenieke kultura berri batean integratzen ari diren bitartean beren balioak eta sinesmenak mantentzen saiatzen ari diren pertsona migratuei?
12. Zer deritzozu gaur egungo gizartean kulturen arteko elkarrizketa eta aniztasunarekiko errespetua sustatzearen garrantziari?
13. Zure ustez, nola susta dezakete ikastetxeek espazio inklusiboa eta errespetuzkoa migratutako pertsonentzat?
14. Zure ustez, nola eragin dezake pertsona migratu gisa duzun esperientziak etorkizunean gai globalei heltzeko moduan?
15. Zure ustez, nola eragin du zure migrazio-prozesuak zure nortasunean eta komunitate global baten parte izateak esan nahi duenari buruzko pertzepzioan?

ZERUERTZ

